

## erdiko kaira

Musika

# Danbaka

## Lehiaketa baino askoz gehiago



IKER BARANDIARAN

Argazkiak: Danbaka

Danbaka Musika Lehiaketa 2004an jaio zen Goiena Komunikazio Kooperatiba Elkartearen eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiaren ekimenez. Helburua Debagoieneko musika taldeei bultzada ematea eta aisialdirako ekintzak sortzea zen. Dagoeneko hirugarren edizioa antolatu dute, Debabarrenera eta Durangaldera ere zabaldu dute aurtengoan, eta lehiaketak taldeei bultzada emateko daukan moduari esker beste lehiaketetatik bereizi egiten da Danbaka.

GOIENAK DITUEN hedabideak bozgorailu bihurtuta 2004ko uztailean musika taldeen-tzat izenematea zabaldu zuten. Helburua zen zuzenean lehiari aritzeko 20 banda lortzea. Gutxienez taldekideetako bat Debagoienean errolatuta egotea, kontratu diskografikorik indarrean ez izatea eta hiru kanta original aurkeztea izan ziren ezarrirako baldintzak. Abuztuko oporretatik bueltan 40tik gora talderen lanak zituzten esku

artean. Epaimahaiak grabazio guztiak entzun eta ahalik eta musika estilo gehien bermatuz, 20 talde aukeratu zituen zuzenekoetarako. Lehiaketak izugarritzeko sona lortu zuen eta Elgetako Espaloiko kontzertu bakoitzean 400 bat pertsona izan ziren: lagunak animatzen batzuk, bailaran dagoen musika eskaintzaz gozatzen besteak. Finalera hiru talde heldu ziren, eta Sharon Stoner talde oñatiarra bilakatu zen

lehenengo irabazlea. Horri esker, estreinako diskoa grabatu zuten Arrasateko Shot! Grabazio estudioan, eta ondoren beraien kasa kaleratu zuten. Gainera, 2005ean, Bilbo Hiria musika lehiaketa ospetsuan Euskal Herriko talde onenaren saria jaso zuten. Une honetan bigarren diskoa fabrikatu dute eta azaro hasierarako kalean izango da. Lehenengo edizioiko finalean aritu zen Muted taldeak dagoeneko bi disko kaleratu ditu. Hirugarrena Oñatiko Potemkin da: hard-rock eta punk-rock disko indartsua kaleratu ostean, taldea geldi dago kideetako bi Latzeneko sortzaile ere badirenez, proiektu horren itzuleran murgildu direlako. Ikuslearen saria, berriz, Arrasateko Enboscada taldeak irabazi zuen. Musika zaleek beraien gustuko taldearen alde bozkatu ahal izan zuten Espaloiako postontziak erabilita edota SMSak bidalita.

Horrez gain, Danbakara bakarlari asko aurkeztu ziren, ia inork eza gutzen ez zituenak, eta lehiaketaren ondorioz hortik aurrera taberna eta bestelako aretoetan jotzen hasi ziren. Beste talde batzuekin ere antzerako zerbaít gertatu zen, baina bakarlariena nabarmenagoa izan zen, agian ordura arte ez zegoelako zirkuitu edota ohitura handirik.

### Bi urtetik behin

Emaiza horiek ikusita, Goienak eta Espaloiak erabaki zuten Danbakaren beste edizio bat antolatzea bi urtean behin, ahalik eta berrikuntza edota aldaketa gehien egon zitezen. Hala, konturatu ziren ibarreko



**Ezkerrean goitik behera: Adi Holden, Mery May, Army-Arma eta Scam. Aurtengo Danbaka lehiaketan txapela janzteko borrokan ariko diren 24 taldeen arteko batzuk dira. Nork irabaziko du?**



talde asko kantuak prestatzen zebiltzala Danbakako agendara begira. Horrek erakutsi zien lehenengo edizioa ez zela ameskeria hutsa izan eta lehiaketa hori jende artean errotuta zegoela ordurako. Hala ere, aldaketa txiki batzuk ezarri zizkioten bigarren edizioan: epaimahaiak 20 talde beharrean 19 aukeratu zituen, eta 20. lehiakidea jendearen eskuetan utzi zuten. Hala, aurkeztutako talde guztien mp3ak eta fitxak danbaka.com webgunean eskegi zituzten eta zaleek bost egun izan zituzten bozkatzeko. Are gehiago, sari nagusia diskoaren grabazioa izateaz gain, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin hitzarmena egin zuten grabazio hori kaleratu ahal izateko. Eta azkenik, Bakarlariaren saria sortu zuten.

2006ko edizioan ere jende asko hurbildu zen kontzertuak ikustera, eta ordurako sortuta zuten danbaka.com webgunetik ere musika zale askok jarraitu zuten lehiaketa. Sari nagusia Bergarako Aby-Kem taldeak lortu zuen; ikuslearen saria Oñatiko Malenkonía taldeak eta bakarlari onena Arrasateko Jim TNT izendatu zuten.

### Talde guztiak irabazle

Danbaka lehiaketako antolatzaileek askotan nabarmentzen dute aurkeztu diren talde guztiak direla neurri batean ira-

bazle. Hori esateko, arrazoitzen dute helburua dela musika taldeak eta horiek egiten dutena ezagutzera ematea; eta egia esanda, Danbakak horretarako gailu asko ditu. Lehenik eta behin, aurkezten diren talde guztien (sailkatu edo ez) mp3ak eta fitxak danbaka.com webgunean eskegitzen dituzte edozeinek ikusi eta entzun ditzan. Horrez gain, Goienako hedabideek (Goiena Telebistak, Goienkariak, Arrasate Irratiak, Goiena.net-ek eta Danbaka.com-ek) lehiaketari eta lehian dabiltzan taldeei jarraipen zabala egiten diete, elkarrizketa, erreportaje eta bestelakoekin. Are gehiago, Goiena Telebistak eta Arrasate Irratiak lehiaketako kontzertu guztiak emititu egiten dituzte; eta Tokiko Telebisten Elkartearen elkarlanari esker Euskal Herriko beste hainbat eskualdetan ere kontzertu horiek ematen dituzte: Goierri, Tolosaldean, Nafarroako Bortzirietan, Gernika aldean, Zarautz eta Urola aldean eta abar.




**Goian The Wet Band** mutrikua-  
rrak; behean  
berriz, Abadiño-  
ko Ymotek. Esti-  
lo anitzeko tal-  
deek parte  
hartzan dute  
Danbaka lehi-  
ketan.

ariko dira ostiraletan Elgetako Espaloian, bakoitza ordu erdiz. Horren ostean, epaimahaiak aukeratutako hiru finalistak 2009ko urtarrilaren 16an lehiatuko dira. Aurten sariak hiru dira: lehiaketako talde onena, Debagoieneko talde onena eta ikuslearen saria: lehenak eta bigarrenak sari bera jasoko dute Kutxaren eta Mondragon Unibertsitatearen eskutik, disko baten grabazioa Arrasateko Shot! estudioan eta diskoaren kaleratzea Gaztelupeko Hotsakekin; eta ikusleek aukeratutakoak, berri, 1.300 euroko bonoa Arrasateko Lazkano musika dendan gastatzeko. ■

### Danbaka DVD-CDa

Bide beretik doa orain dela hilabete inguru kaleratu duten lana: Danbakako II. edizioko DVD-CDa. Danbakak Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen laguntzarekin kaleratu du bigarren edizioko 20 talderen lanak batzen dituen lan bikoitza. CDan talde bakoitzaren zuzeneko kantu bana batu dute; eta DVDan talde bakoitzaren bideo-clip-elkarrizketa eta



# B I L B O

Urriaren 31tik azaroaren 16ra arte, Arenalean

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

**EUSKADIKO LIBURU GANBARA**

*Bizi irakurriz!*